



ZIGOITIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



ZIGOITIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA –
ZIGOITIKO UDALA
SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA
PLANA

PLAN DE MEDIDAS ANTIFRAUDE – AYUNTAMIENTO
DE ZIGOITIA
PLAN DE RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y
RESILIENCIA



Cód. Validación: 3Q537XU97SKD75QJPMRCHD6 | Verificación: <https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/>
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 1 de 33



**IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA –
ZIGOITIKO UDALA
SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA
PLANA**

1.- JUSTIFIKAZIOA ETA SARRERA

Europako Kontseiluak 2020ko uztailaren 21ean onetsi zuen NextGeneration EU Programa sortzea; ekonomia suspertzeko tresna da, COVID-19ak eragindako aurrekaririk gabeko krisiari erantzuteko finantza neurri garrantzitsuenetako bat, krisiaren ondorioek beren horretan jarraitu baitute ondorengo urteotan.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2021eko otsailaren 12an emandako 2021/241 (EB) Erregelamenduak xedatua dakarren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) da Suspertze Funtzaren muina, eta helburu gisa dauka estatu kideen inbertsioetan eta erreformetan laguntzea suspertze jasangarri eta erresilientea lortzeko, EB-aren lehen tasun ekologiko eta digitalak sustatzearekin batera.

SEM-aren abiapuntu eta sorburu den heinean, erreferentzia egin behar zaio Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2021eko urriaren 25ean emandako 966/2012 Erregelamenduari, zeinak aukera ematen baitzuen funts europarrak modu zuzenean, partekatuan edo zeharkakoan kudeatzea (58. artikulua).

Lau helburu nagusi du SEM-ak: Europar Batasunean ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koherentsia sustatzea; estatu kideen erresilientzia eta doitzegaitasuna indartzea; COVID-19ak eragindako krisiaren ondorio sozialak eta ekonomikoak arintzea; eta trantsizio ekologikoan zein digitalean laguntzea. Horien guztien xedea da EB-ko ekonomien hazkunde-potentziala leheneratzea, krisiaren ostean enplegu-sorkuntza piztea eta hazkunde jasangarria sustatzea.

Helburu horiek erdiesteko, estatu kide bakoitzak suspertze eta erresilientziarako plan nazional bat diseinatu behar du, zeinak azaldutako helburuok lortzeko erreformak eta inbertsio-proiektuak jasoko dituen. Estatuko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak (aurrerantzean, PRTR) zeharkako **lau ardatz** ditu, **hogeita hamarna osagai** duten **10 palanka-politikatan** banatuta, Planaren inbertsio- eta erreforma-plan koherenteak artikulatzeko:

- Trantsizio ekologikoa
- Eraldaketa digitala
- Gizarte- eta lurralde-koherentsia
- Genero-berdintasuna

**PLAN DE MEDIDAS ANTIFRAUDE – AYUNTAMIENTO
DE ZIGOITIA
PLAN DE RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y
RESILIENCIA**

1.- JUSTIFICACIÓN E INTRODUCCIÓN

El Consejo Europeo aprobó el 21 de junio de 2020 la creación del programa NextGeneration EU, un instrumento dirigido al estímulo económico, siendo una de las medidas más importantes desde el punto de vista financiero asumidas desde la Unión Europea, en respuesta a una crisis sin precedentes causada por la COVID 19 en el año 2020, cuyos efectos continúan en años sucesivos.

El Mecanismo para la Recuperación y la Resiliencia (MRR), establecido a través del Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021, constituye el núcleo del Fondo de Recuperación, y su finalidad es apoyar la inversión y las reformas en los Estados Miembros para lograr una recuperación sostenible y resiliente, al tiempo que se promueven las prioridades ecológicas y digitales de la UE.

Como punto de partida de la existencia del MRR, debemos hacer referencia al Reglamento nº 966/2012 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 25 de octubre de 2012, que permitía la gestión directa, compartida e indirecta de los fondos europeos (art. 58).

El MRR tiene **cuatro objetivos principales**: promover la cohesión económica, social y territorial de la UE; fortalecer la resiliencia y la capacidad de ajuste de los Estados Miembros; mitigar las repercusiones sociales y económicas de la crisis de la COVID- 19; y apoyar las transiciones ecológica y digital. Todos ellos van dirigidos a restaurar el potencial de crecimiento de las economías de la UE, fomentar la creación de empleo tras la crisis y promover el crecimiento sostenible.

Para alcanzar esos objetivos, cada Estado Miembro debe diseñar un Plan Nacional de Recuperación y Resiliencia que incluya las reformas y los proyectos de inversión necesarios para alcanzar esos objetivos. El Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia del Estado (en adelante PRTR) tiene **cuatro ejes transversales que se vertebran en 10 políticas palanca**, dentro de las cuales se recogen treinta componentes, que permiten articular los programas coherentes de inversiones y reformas del Plan:

- la transición ecológica
- la transformación digital
- la cohesión social y territorial
- la igualdad de género





Abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazteko onestearekin batera, **azkartze- eta kontrol-neurriak** jaso eta hartu ziren. Azaldutakoaren jarraipen gisa onetsi da irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua, zeinaren bidez eratzten den Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema.

Hauek dira aipatutako aginduaren arau-aurrekariak: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 Erregelamendua, 2013ko abenduaren 17koa, Batasunaren Egitura Funtzak eta horiek kudeatzeko modua jorratzen dituen; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/1371 (EB) Zuzentaraua, 2017ko uztailaren 5koa, Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurka Zigor Zuzenbidea erabilita borrokatzeari buruzkoa; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua, 2018ko uztailaren 18koa, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatzen dakizkion finantza-arauei buruzkoa.

Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan jasotako xedapenen artean, azpimarratzekoa da **6. artikuluan** jaso eta garatzen den obligazioa, zeinaren kariaz **SEEP-eko neurrien betearazpenean parte hartzen duen erakunde erabakitzaile zein betearazle orok «Iruzurraren aurkako Neurrien Plana»** izan beharko baitu, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eratzekoaren 22. artikuluan Espainiako Estatuari SEM-aren funtsen onuradun den heinean Batasunaren finantza-interesak babesteko ezartzen zaizkion betebeharrak betetze aldera. Iruzurraren aurkako Neurrien Planari esker delako erakundeak gaitasuna izan beharko du bermatu eta adierazteko bere jarduketa eremuan arau aplikagarriekin bat erabili direla egokitutako funtsak, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, antzeman eta zuzentzeari dagokionez.

Azkenik, adierazi beharra dago eremu europarrean ez dela berria finantza-interesak integritate-planen bitartez aldezte. Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatuak (EBFT), 2010eko martxoaren 30ekoak, zera dakar jasota 310. artikuluan 5. eta 6. Idatzi-zatietan:

- 5. Aurrekontua gauzatuko da finantzen kudeaketa ona printzipio arautzaile duela. Estatu kideak eta Batasuna elkarrekin lankidetzan arituko dira, aurrekontuan jarritako kredituak printzipio horren arabera erabil daitezten.*
- 6. Batasunak eta estatu kideek, 325. artikuluari jarraituz, iruzurra eragotziko dute, baita Batasunaren finantza-interesen kaltean izan daitekeen legearen aurkako beste edozein jarduera ere.*

Iruzurraren aurkako neurriei eta horren inguruko arau aplikagarriei dagokienez, enplegatutako publiko hautetsi nahiz

A través de la aprobación del Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban **medidas** urgentes para la **modernización** de la Administración Pública y para la **ejecución** del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, se adoptaron y se recogieron medidas de agilización y control. Como continuación a lo expuesto se ha aprobado la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

Los antecedentes normativos de esta Orden serán el Reglamento N° 1303/2013 del Parlamento y del Consejo de 17 de diciembre de 2013, que trata sobre los Fondos Estructurales de la Unión y la forma en que deben gestionarse; la Directiva (UE) 2017/1371 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 5 de julio de 2017, sobre la lucha contra el fraude que afecta a los intereses financieros de la Unión a través del Derecho penal y; el Reglamento (UE, Euratom) 2018/1046 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 18 de julio de 2018, sobre las normas financieras aplicables al presupuesto general de la Unión.

Entre las previsiones de Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, destaca la obligación que impone y desarrolla el **artículo 6** de que, con la finalidad de dar cumplimiento a las obligaciones que el artículo 22 del Reglamento (UE) 2021/241, de 12 de febrero, del Parlamento Europeo y del Consejo, por el que se establece el **Mecanismo de Recuperación y Resiliencia** impone al Estado Español en relación con la protección de los intereses financieros de la Unión como beneficiario de los fondos del MRR, toda entidad, decisora o ejecutora, **que participe en la ejecución de las medidas del PRTR deberá disponer de un «Plan de medidas antifraude»** que le permita garantizar y declarar que, en su respectivo ámbito de actuación, los fondos correspondientes se han utilizado de conformidad con las normas aplicables, en particular, en lo que se refiere a la prevención, detección y corrección del fraude, la corrupción y los conflictos de intereses.

Finalmente, se debe señalar que la defensa de los intereses financieros de la Unión a través de un plan de integridad no es una novedad en el ámbito europeo. El Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (TFUE), de 30 de marzo de 2010, en su artículo 310, apartados 5° y 6°, señala:

- 5. El presupuesto se ejecutará con arreglo al principio de buena gestión financiera. Los Estados miembros y la Unión cooperarán para que los créditos consignados en el presupuesto se utilicen de acuerdo con dicho principio.*
- 6. La Unión y los Estados miembros, de conformidad con el artículo 325, combatirán el fraude y cualquier otra actividad ilegal que perjudique a los intereses financieros de la Unión.*

En relación con las medidas antifraude y la normativa aplicable al efecto, dentro del ámbito de





hautetsi gabeen bateraezintasunen, interes-gatazken eta jokabide- nahiz etika-printzipioen alorrean aurrekariak dira jarraian ageri diren lege testuak, eta iruzurraren aurkako planean ere landuko da alorra: apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa (TAOL), 75. eta 76. artikulua; urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, zeinaren bidez onetsi baitzen Enplegatu Publikoaren Estatutu Basikoaren Legearen testu bategina, 52.-etik 54.-erako artikulua; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa; ekainaren 26ko 1/2014 Legea, Euskadiko kargu publikoen jokabide kodea eta interes-gatazkak arautzekoa eta apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (35. artikulua, toki erakundeen jokabide kodea). Horiek guztiek osatzen dute testu honen oinarria, Zigoitiko Udalak 20219ko azaroan onetsitako Jokabideari, gobernu onari eta erakunde-kalitateari buruzko kodeaz gain.

2.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Testuinguru horretan, Zigoitiko Udalak konpromisoa hartu du iruzurraren aurkako politika indartzeko bere eginkizunak garatzean eta bere eskumenen esparruan.

Horretarako, arau juridikoak, etikoak eta moralak betetzeko estandar zorrotzak barnebiduko dituen tresna egokia eman nahi da, baita integritate-, objektibotasun- eta zintzotasun-printzipioekiko atxikimendua berretsi ere, horretarako, iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako kultura garatuz eta hedatuz, zeinak udal erakundearekin harremana duten edo erakundean parte hartzen duten eragile guztiek argi hautemateko modukoa izango baita.

Proposamen hori indartzeko, enplegatu publikoen betebeharrak dira, besteak beste, interes orokorrak zaintzea eta, horretarako, printzipio hauen arabera jokatzeko: objektibotasuna, integritatea, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoarekiko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, eraginkortasuna, jasangarritasuna eta berdintasunarekiko errespetua.

Adierazpen honen bidez, iruzurrezko jokabideak edo jarduerak eragingo ez dituen **kultura etiko** bat sustatu nahi da erakundearen barruan, jokabide edo jarduera horiek prebenitzea eta antzematea errazteko, kasu horiek kudeatzeko prozedura eraginkorrak garatuz. Helburua ahalik eta modu osoenean lortzeko, iruzurraren aurkako plan hau Udaltzaren Osoko Bilkurak onetsiko du, eta Zigoitiko Udalaren intranetean nahiz gardentasun-atarian argitaratuko da.

Horretarako, iruzurraren aurkako batzorde bat eratuko da, zeinak eskumen zehatzak izango baititu hemen egindako adierazpenak gauzatzeko. Batzorde horrek, beste unitate batzuekin lankidetzan, arloen barne-kontrolerako sistema egokia dagoela ziurtatuko du, eta neurri zuzentzaileak berehala ezartzen direla bermatuko.

incompatibilidades, conflictos de intereses y principios éticos y de conducta del empleado público, electo o no, los cuales serán también objeto de este Plan Antifraude, la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local (LBRL), artículos 75 y 76; el Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, en sus artículos 52 a 54; la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público; la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de Intereses de los Cargos Públicos de Euskadi y; la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi (art. 35, código de conducta de las entidades locales), son los antecedentes (junto al Código de Conducta, Buen gobierno y Compromiso con la calidad institucional, de noviembre de 2019, del Ayuntamiento de Zigoitia) más directos y, la base para la realización del presente texto.

2.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

En este contexto expuesto, el Ayuntamiento de Zigoitia está comprometido en reforzar, dentro del ámbito de sus competencias, una política antifraude en el desarrollo de sus funciones.

Para ello se pretende dotar del instrumento adecuado que asuma unos estándares exigentes en el cumplimiento de las normas jurídicas, éticas y morales, así como su adhesión a los principios de integridad, objetividad y honestidad, apostando por el desarrollo e incremento de una cultura opuesta al fraude y a la corrupción que sea percibida por todos los agentes que se relacionan o participan con la entidad municipal.

Como refuerzo a esta propuesta, las y los empleados públicos tienen, entre otras obligaciones, la de velar por los intereses generales, actuando con arreglo a los principios de: objetividad, integridad, neutralidad, responsabilidad, imparcialidad, confidencialidad, dedicación al servicio público, transparencia, ejemplaridad, eficacia, sostenibilidad y respeto a la igualdad.

Con esta declaración se pretende promover dentro de la organización una **cultura ética** que no dé lugar a conductas o actividades fraudulentas y que facilite su prevención y detección, promoviendo el desarrollo de procedimientos efectivos para la gestión de estos supuestos. Para conseguir el objetivo al más alto nivel, el presente Plan antifraude será aprobado en el pleno corporativo y publicado tanto en la intranet como en el portal de transparencia del Ayuntamiento de Zigoitia.

A tal efecto se creará un Comité Antifraude con atribuciones concretas para llevar a término las manifestaciones aquí expuestas, el cual, en colaboración con otras unidades, aseguran la existencia de un adecuado sistema de control interno de sus áreas, garantizando la inmediata implementación de medidas correctoras.





Konfidentzialtasunik zorrotzenarekin eta gai hori eraentzen duten arauen arabera tratatuko dira txosten guztiak, betiere, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren (IBEB-aren) jarraibideak kontuan hartuta.

Azken batean, Zigoitiko Udalak **zero tolerantziako politika** hartzen du iruzurrekiko, eta barne kontrolerako sistema bat ezartzen du, ahal den neurrian iruzurrezko edozein jarduera prebenitu, detektatu eta, hala dagokionean, horren ondorioak zuzentzeko. Hartara, Udalak bere egiten ditu integritate-, inpartzialtasun- eta zintotasun printzipioak, bere eginkizunak gauzatzean aplikatzeko.

Ondore horietarako, eta erakunde betearazle gisa, Udal honen asmoa da Iruzuraren aurkako Neurrien Plana onestea. Jarraian azalduko da horren edukia.

3.- XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Iruzuraren aurkako Plan honen xedea da iruzurraren eta ustelkeriaren aurka eta interes gatazkak ekiditeko bete eta gorde behar diren printzipioak eta arauak zehaztea planaren aplikazio-eremu objektiboaren barruan, hau da, Suspertze eta Erresilientziarako Mekanisмотik (SEM-etik) datozen funtsen eremuan, hertsiki (Next Generation Funts Europarrak), baina, aurrera begira, Europatik aurrerago etor litezkeen funtsen kudeaketa edota betearazpena behar bezala egiteko ere balioko du Iruzuraren aurkako Plan honek.

Hortaz, Plan honek hurrengo helburu zehatzak lortu nahi ditu:

- Debekatutako jardunbideak goiz prebenitzen eta detektatzen laguntzea.
- Proiektuak beren oinarri, termino eta baldintzen arabera gauzatu diren zehaztea.
- Udalaren funtsak aurreikusitako helburuetarako erabili direla bermatzea; eta
- Politikan, prozeduretan eta kontrolatan hobekuntzak gomendatzea, abian diren proiektuetan eta etorkizunekoetan debekatutako praktiken aukerak mugatzeko.

Finantza-kudeaketa ona eta Batasunaren interesen babesa izango dira Iruzuraren aurkako Planaren printzipioak.

Iruzuraren aurkako helburuak lortzeko, iruzurrezko jarduera ororen aurkako disuasio gisa balioko duen kultura bat sustatuko da, zeinari esker posible izango baita iruzurra prebenitu eta detektatzea. Iruzurra eta horri lotutako delituak ikertzea errazteko prozedurak ere garatuko dira, horrelako kasuak behar bezala eta behar denean tratatzen direla bermatzeko.

Todos los informes se tratarán con la más estricta confidencialidad y de acuerdo con las normas que regulen esta materia, y siempre teniendo en cuenta las directrices de la Oficina Europea de Lucha contra el Fraude (OLAF).

En definitiva, el Ayuntamiento de Zigoitia adopta una **política de tolerancia cero** con el fraude, estableciendo un sistema de control interno diseñado para prevenir y detectar, dentro de lo posible, cualquier actuación fraudulenta y, en su caso, subsanar sus consecuencias, adoptando para ello los principios de integridad, imparcialidad y honestidad en el ejercicio de sus funciones

A estos efectos, y como entidad ejecutora, es intención de este Ayuntamiento aprobar el Plan de Medidas Antifraude cuyo contenido figura a continuación.

3.- OBJETIVO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

El presente Plan Antifraude tiene como objetivo establecer los principios y las normas que serán de aplicación y observancia en materia antifraude, anticorrupción y a fin de evitar los conflictos de intereses en relación con el ámbito objetivo de aplicación del plan, esto es, los fondos provenientes del Mecanismo para la Recuperación y la Resiliencia (MRR), de manera estricta (Fondos Europeos Next Generation), pero, con la previsión de que el Plan Antifraude sirva para la debida gestión y/o ejecución de futuros fondos de origen europeo.

En concreto, este Plan tiene los siguientes objetivos específicos:

- Ayudar a prevenir y detectar prácticas prohibidas en una fase temprana.
- Determinar si los Proyectos se han ejecutado de conformidad con sus bases, términos y condiciones.
- Garantizar que los fondos del Ayuntamiento se han utilizado para los fines previstos; y
- Recomendar mejoras en las políticas, procedimientos y controles de manera que se limiten las posibilidades de prácticas prohibidas en los Proyectos en curso y futuros.

Los principios del Plan Antifraude serán la buena gestión financiera y la protección de los intereses de la Unión.

Para obtener los objetivos antifraude, se promoverá una cultura que ejerza un efecto disuasorio para cualquier tipo de actividad fraudulenta, haciendo posible su prevención y detección, y desarrollando unos procedimientos que faciliten la investigación del fraude y de los delitos relacionados con el mismo, que permitan garantizar que tales casos se abordan de forma adecuada y en el momento preciso.





Zigoitiko Udalak eta hari atxikitako erakundeek osatzen duten plan honen eremu objektiboa, barne hartuta ordezkartza-kargu eta kargu exekutiboak, langile zuzendariak eta enplegatu publikoak. **Iruzurraren aurkako zikloaren** lau gako-elementuak ditu ardatz (prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta esespena) SEM-etik datozen funtsen kudeaketan parte hartzen duten organo nahiz langile guztiei aplikatuko zaie.

Halaber, eta kontuan hartuta Udalak bere eginkizunak betetzeko eta zerbitzu publikoak emateko hirugarrenen esku-hartzea beharrezkoa dela, besteak beste, erakunde, organismo eta instituzio pribatu nahiz publikoena, hornitzaileena, kontratistena, azpikontratistena edo kolaboratzaileen (aurrerantzean, horiek guztiak izendatzeko "Hirugarrenak" erabiliko da eta, banaka izendatzeko, "Hirugarrena"), politika hau bere egin beharko dute Udalarekiko edozein harreman eduki ahal izateko. Jasotzaileek politika honetan jasotako iruzurraren aurkako konpromisoekin bat eta iruzurra, ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko nazioarteko xedapenekin bat jokatu beharko dute hirugarrenetik harremanetan eta, zehazki, erakunde eta agintari publikoekiko harremanetan.

4.- IRUZUR-ARRISKUAREN EBALUAZIOA

Iruzurraren aurkako neurri proportzionatu eta efikazak diseinatu ahal izateko, tarteko urrats gisa, iruzurrezko jardunak jasateko arriskua ebaluatzeko **autoebaluazio** bat egin behar du Udalak, HFP/1030/2021 Aginduaren 6.2 artikulua barruan II.B.5 eranskinari egiten zaion erreferentzian xedatukoarekin bat.

Aurrerago azalduko den Iruzurraren aurkako Batzordearen arduraren izango da urtean behin autoebaluazioa egitea; inguruabarren arabera egokitzen jotzen bada, periodikotasun hori txikiagoa izan daiteke, esaterako, arau-edo antolakuntza-aldaketak daudenean, inguruabar berriak agertzen direnean edo iruzurraren aurkako ahulguneak antzematen direnean.

Plan hau onetsi eta hurrengo hilabetean egingo da lehenengo autoebaluazioa.

Plan honen **I. eranskinean** dator autoebaluazioaren inprimakiaren eredua. Era berean, berriazko arriskuen autoebaluazioak egingo dira.

5.- IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIAK

Zigoitiko Udalak **iruzurraren aurkako zikloaren** lau gako-elementuak ardatz gisa hartuta artikulatuko ditu plan honen barruko neurriak eta prozedurak: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta esespena.

5.1. PREBENTZIO-NEURRIAK

Este plan, cuyo ámbito subjetivo será el Ayuntamiento de Zigoitia y sus entidades adscritas, abarcando a todos los cargos representativos y ejecutivos, personal directivo y personal empleado público, se estructura en torno a los cuatro elementos clave del denominado **ciclo antifraude**: prevención, detección, corrección y persecución, y será de aplicación a todos los órganos y a todo el personal que intervenga en la gestión de fondos provenientes del MRR.

Asimismo, y sobre la base de que el desarrollo y ejecución de sus funciones y la prestación de servicios públicos por el Ayuntamiento requiere de la intervención y participación de terceras partes tales como, entre otras, entidades, organismos e instituciones públicas o privadas, proveedores, contratistas, subcontratistas o colaboradores (en adelante, todos ellos serán denominados conjuntamente como los "Terceros" e individualmente como el "Tercero"), estos deberán adherirse a la presente Política para poder entablar y mantener cualquier tipo de relación con el Ayuntamiento. Los Destinatarios, en su relación con Terceros y, en particular, con autoridades e instituciones públicas, actuarán de una manera acorde con los compromisos antifraude contenidos en la presente Política y con las disposiciones nacionales e internacionales para la prevención del fraude, de la corrupción y del soborno.

4.- EVALUACIÓN DEL RIESGO DE FRAUDE

Para poder diseñar medidas antifraude proporcionadas y eficaces, es preciso que el Ayuntamiento realice como paso intermedio la previa **autoevaluación** en lo referente a su riesgo de sufrir actuaciones fraudulentas, según dispone el artículo 6.2 de la Orden HFP/1030/2021 en su remisión al ANEXO II.B.5 del mismo texto.

Será el Comité antifraude, que más adelante se detalla, el encargado de realizar la autoevaluación con una frecuencia que se establece con carácter anual; si bien podrá exigirse con periodicidad inferior ante circunstancias que así lo aconsejen como pueden ser los cambios normativos u organizativos, la aparición de circunstancias novedosas o la detección de puntos débiles ante el fraude.

La primera autoevaluación se realizará dentro del primer mes desde la aprobación del Presente Plan.

El modelo de dicha autoevaluación se recoge en el **Anexo I** del presente Plan. Asimismo, se llevarán a cabo autoevaluaciones de riesgos específicos.

5.- MEDIDAS PARA LA LUCHA CONTRA EL FRAUDE

El Ayuntamiento de Zigoitia articula una serie de medidas y procedimientos estructurados en torno a los cuatro elementos clave del **ciclo de lucha** contra el fraude: prevención, detección, corrección y persecución.

5.1. MEDIDAS DE PREVENCIÓN





A. Adierazpen instituzionala.

Beharrezkotzat jo da erakundeak iruzurraren aurka duen jarrera adierazi eta ahal beste hedatzea, eta, horretarako, Zigoitiko Udalak iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala izenpetu du, zeina integritatearen, objektibotasunaren, kontu-ematearen eta zintzotasunaren baloreetan oinarritua baitago. Adierazpena Planean jaso da. Adierazpena barne- zein kanpo-kanalak erabilita hedatuko da, ahal beste (intranet eta web ataria, besteak beste).

B. Jokabide-kodea.

Testu honetan jasotako adierazpen instituzionalaz gaindi, Zigoitiko Udalak konpromisoa hartu du udaletxeko langile guztiak ere barne hartuko dituen jokabide-kode bat eta printzipio etikoen kode bat sortzeko. Iruzurra ekar lezaketen inguruabarren aurrean espero den jokabidea zehazten du kodeak eta jokabide-konpromiso hauek dituzte oinarrian bere printzipioek:

- Lege aplikagarriak zorrozki betetzea.
- Baliabide publikoak modu egokian erabiltzea.
- Integritatea, profesionaltasuna eta kudeaketa zintzoa.
- Gardentasuna eta informazioa egoki erabiltzea.
- Onuradunekiko tratu inpartziala eta diskriminazio gabea.
- Udalaren ospea babestea funtsen kudeaketari dagokionez.

NextGen funtsen kudeaketari nahiz Europar Batasunetik jaso litezkeen gainerako funtsen kudeaketari aplikatuko zaio Udaleko enplegatu publikoen jokabide-kodea eta printzipio etikoen kodea izango dena, eta onetsi bezain laster argitaratuko da Udalaren Gardentasun Atarian nahiz intranetean, ezagutza orokorrerako eta ahal beste hedatzeko.

C. Interes-gatazkarik ez izatearen adieraztea.

Interes-gatazkarik ez izatearen adierazpen (IGEA) bat betetzeko betebeharrak ezartzen zaie SEM-aren kontura finantzatutako dirulaguntzen kontratazio- eta emate prozeduretan parte hartzen duten pertsona guztiei.

Kide anitzeko organoen kasuan, batzarra hasterakoan egin dezakete adierazpen hori batzarrean parte hartuko duten pertsona guztiek; kasu horretan, batzarrean aktan jaso beharko da. Halaber, IGEA betetzeko betebeharrak ezartzen zaie laguntza jasotzeko betekizun gisa interes-gatazka eragin ditzaketan jarduerak bideratu behar dituzten pertsona onuradun guztiei.

A. Declaración institucional.

Se considera necesario manifestar y difundir al máximo la postura antifraude de la entidad y, para ello, el Ayuntamiento de Zigoitia suscribe la declaración institucional antifraude basada en los valores de integridad, objetividad, rendición de cuentas y honradez, y que forma parte de este Plan. De la misma se dará máxima difusión por diversos canales internos y externos (intranet y portal web, entre otros).

B. Código de conducta.

El Ayuntamiento de Zigoitia, más allá de la declaración institucional reflejada en este texto, se compromete a crear un código de conducta y principios éticos que abarque además a todas y todos los empleados públicos del consistorio. Este código establece el comportamiento esperado ante posibles circunstancias que pudieran dar lugar a fraude y sus principios se basan en los siguientes compromisos de conducta:

- Cumplimiento riguroso de la legislación aplicable.
- Uso adecuado de los recursos públicos
- Integridad, profesionalidad y honradez en la gestión.
- Transparencia y buen uso de la información.
- Trato imparcial y no discriminatorio a personas beneficiarias
- Salvaguarda de la reputación del Ayuntamiento en la gestión de Fondos.

El futuro código de conducta y principios éticos de las y los empleados públicos de ayuntamiento, aplicable tanto a la gestión de los fondos NextGen como al resto de fondos que puedan recibirse desde la Unión Europea, se publicará tan pronto sea aprobado en el portal de transparencia del Ayuntamiento y en la intranet, para su general conocimiento y mayor difusión.

C. Declaración de ausencia de conflicto de intereses.

Se establece la obligación de cumplimentar una declaración de ausencia de conflicto de intereses (DACI) para todas las personas intervinientes en los procedimientos de contratación y de concesión de subvenciones financiados con cargo al MRR.

En caso de órganos colegiados, dicha declaración puede realizarse al inicio de la correspondiente reunión por todas y todos los intervinientes en la misma y reflejándose en el Acta. Igualmente, se establece la obligatoriedad de cumplimentación de la DACI como requisito a aportar por todas las personas beneficiarias que, dentro de los requisitos de concesión de la ayuda, deban llevar a cabo actividades que presenten un conflicto de intereses potencial.





IGEAREN dokumentua betetzean, zorrozki aplikatu beharko da urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bategina onestekoaren 53. artikulua, printzipio etikoei buruzkoa, urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoaren 23. artikulua, abstentzioari buruzkoa eta abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa, aplikagarri diren gainerako lege eta arauz gain.

IGEAREN inprimaki-eredua **II. eranskinean** jaso da.

Interes-gatazka eragin dezakeen kausaren bat duen pertsonak ez du esku hartuko eragindako prozeduretan. Udaleko langileak inplikatzeko dituenean, pertsona horrek hierarkian gorago dagoenari edo, hala badagokio, lurraren aurkako Batzordeari jakinaraziko dio, plan honen 6. puntuan ezarritako prozeduraren arabera.

D. Erakunde osorako prestakuntza-plana.

Zigoitiko Udalak konpromisoa hartzen du iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken inguruko gai desberdinei buruzko ikastaroak eta hitzaldiak antolatzeko, langileei beharrezko ezagutzak hornituta, funts publikoen erabileran etikoak ez diren jokabideak, eta ondorioz, iruzur potentzialak detektatu eta prebenitzeko gai izan daitezten. Horren guztiaren xedea izango da erakunde barruan kultura etikoa bultzatzea, besteak beste, integritatearen, objektibotasunaren, kontu-ematearen eta zintotasunaren printzipioen sustapenean oinarrituta.

Halaber, plan hau onetsi eta gero, informazio-jardunaldi bat antolatuko da, Udaleko langile guztiari ezagutzera emateko dokumentu honen edukia eta irismena.

E. Barne-kontrolako sistema eraginkorra.

Zigoitiko Udalak barne-kontrolerako sistema eraginkorra du, behar bezala diseinatua eta kudeatua, eta horren parte dira identifikatzen diren arriskuak eraginkorki leuntzea ardatz duten kontrolak.

Udaleko kontu-hartzaile nagusiak egiten du barne-kontrol hori, lege-testu hauetan xedatutako terminoetan: martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, Tokiko Ogasunak arautzeko Legearen testu bategina onestekoa, apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua, Tokiko Sektore Publikoko barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzekoa, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua, Estaturako gaikuntza duten Toki Administrazioaren funtzionarioen araubide juridikoa arautzekoa eta gainerako lege aplikagarriak, Udal Aurrekontua Betearazteko Oinarriaz gain. Esku-hartzeak kontrol ekonomikoa egingo du gastua gauzatzeko fase guztietan:

- Litzizio-prozedura eta gastua baimentzea.

Al cumplimentar la DACI se deberá observar la estricta aplicación del artículo 53 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público relativo a los principios éticos, el artículo 23 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, relativo a la abstención y la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, así como cualquier otra normativa de aplicación.

El modelo de DACI se incluye en el **Anexo II**.

La persona en quien incurra alguna de las causas que pueda dar lugar a un conflicto de intereses se abstendrá de intervenir en los procedimientos afectados. Cuando implique a personal de Ayuntamiento, la persona en cuestión lo pondrá en conocimiento de su superior jerárquico o, en su caso, del Comité Antifraude, en virtud del procedimiento establecido en el punto 6 del presente plan.

D. Plan de formación para toda la organización.

El Ayuntamiento de Zigoitia se compromete a organizar cursos y charlas formativas sobre diferentes temáticas en relación con el fraude, la corrupción y los conflictos de intereses, con la finalidad de capacitar al personal con unos aprendizajes que ayuden a detectar y prevenir el comportamiento poco ético del uso de los fondos públicos y, por ende, el potencial fraude. Todo ello orientado al desarrollo en la organización de una cultura ética, basada en el fomento de valores como la integridad, la objetividad, la rendición de cuentas y la honradez.

Asimismo, tras la aprobación del presente plan, se realizará una jornada informativa, a fin de dar a conocer a todo el personal del Ayuntamiento, el contenido y alcance del presente documento.

E. Sistema de control interno eficaz.

El Ayuntamiento de Zigoitia cuenta con un sistema de control interno eficaz, adecuadamente diseñado y gestionado, con controles que se centran en paliar con eficacia los riesgos que se identifiquen.

Dicho control interno se ejerce por la Intervención General del Ayuntamiento, en los términos dispuestos en el Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, en el Real Decreto 424/2017, de 28 de abril, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local, en el Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional y demás legislación aplicable, así como en las Bases de Ejecución del Presupuesto del Ayuntamiento. La intervención efectuará control económico en las diferentes fases de ejecución del gasto:





- Gastuaren xedapena.
- Obligazioa aitortzea.
- Ordainketak.
- Kontabilizazioa.

5.2. DETEKZIO-NEURRIAK

A. IGEA egiaztatzea beste iturrietako informazioarekin erkatuta.

Interes-gatazkarik ezaren adierazpena egiaztatu egin behar da. Egiaztapen-mekanismoek HEZINeko informazioan jarri beharko dute arreta, eta informazio hori beste informazio mota baten argitan aztertu beharko da:

- Kanpoko informazioa (esaterako, interes-gatazka sortu duen egoerarekin zerikusirik ez duten eta erakundeak ez diren pertsonen interes-gatazka potentzial bati buruz emandako informazioa),
- Interes-gatazka sortzeko arrisku handia duten egoera jakin batzuetan egiten diren egiaztapenak, arriskuen barne-analisan edo "bandera gorrietan" oinarrituak (ikusi B atala),
- Ausazko kontrolak.

Informazioa egiaztatzeko, merkataritza erregistroetako datu baseak erabili ahalko dira, baita Dirulaguntzen Datu Base Nazionala, enplegatuen espedienteak (betiere, datuak babesteko arauak gordeta) edo datu-prospekzioarako nahiz arrisku-puntuazioarako tresnak ere.

B. Bandera gorriak.

Beharrezkoa da ziurtatzea kontrol-prozeduren arreta-fokua iruzur-arriskurik handiena duten puntu nagusietan eta horien mugari edo markatzaileetan ipintzen dela. Kontrolak berak iruzurren aurkako disuasio-elementu gisa funtzionatzen du.

Iruzur-zantzuak bilatzeko asmoz, Europako Batzordeak **arrisku-zantzu edo markatzaileen katalogo** bat taxutu du, zeinei "bandera gorri" baiteritzen. Katalogoa **III. eranskinean** jaso da, eta Udalean ere erabili ahalko da. Iruzurrezko jardueraren bat martxan egon litekeela adierazten duten markatzaileen multzo bat da.

C. Kanpo-salaketak egiteko postontzia.

Irregularitasunak salatzekeo prozedura bat eskaintzen da Udalaren webgunearen bidez. Iruzurren aurkako Koordinazio Zerbiztu Nazionalaren esteka (IKZN / SNCA gaztelaniaz) jaso da bertan, hura baita Iruzurren aurkako Europar Bulegoarekin (OLAF arekin) lankidetzan Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko ekintzak koordinatzeko ardura duen organoa.

- Procedimiento de licitación y autorización del gasto.
- Disposición del gasto.
- Reconocimiento de la obligación.
- Pagos.
- Contabilización.

5.2. MEDIDAS DE DETECCIÓN

A. Verificación de la DACI con información proveniente de otras fuentes.

La declaración de ausencia de conflicto de intereses debe ser verificada. Los mecanismos de verificación deberán centrarse en la información contenida en el DACI, que deberá examinarse a la luz de otro tipo de información:

- información externa (por ejemplo, información sobre un potencial conflicto de intereses proporcionada por personas ajenas a la organización que no tienen relación con la situación que ha generado el conflicto de intereses),
- comprobaciones realizadas sobre determinadas situaciones con un alto riesgo de conflicto de intereses, basadas en el análisis de riesgos interno o "banderas rojas" (véase apartado B),
- controles aleatorios.

La comprobación de la información podrá realizarse a través de las bases de datos de registros mercantiles, la Base Nacional de Datos de Subvenciones, expedientes de las y los empleados (teniendo en cuenta las normas de protección de datos) o a través de herramientas de prospección de datos o de puntuación de riesgos.

B. Banderas rojas.

Es necesario asegurar que los procedimientos de control focalicen la atención sobre los puntos principales de riesgo de fraude y en sus posibles hitos o marcadores. La simple existencia de este control sirve como elemento disuasorio a la perpetración de fraudes.

En esta línea de búsqueda de indicios de fraude, la Comisión Europea ha elaborado un **catálogo de signos** o marcadores de riesgo, denominados "banderas rojas". Este catálogo se recoge en el **Anexo III** y podrá ser utilizado en el Ayuntamiento. Se trata de indicadores de aviso de que pudiera estar ocurriendo una actividad fraudulenta.

C. Buzón de denuncias externas.

Se habilita un procedimiento para la denuncia de irregularidades a través de la página web del Ayuntamiento. Se incluye el enlace al Servicio Nacional de Coordinación Antifraude (SNCA), órgano encargado de coordinar las acciones encaminadas a proteger los intereses financieros de la Unión Europea contra el fraude en colaboración con la Oficina Europea de Lucha contra el Fraude (OLAF).





Salaketa-kanal ireki horren bidez, normahik eman ahal izango du antzeman ahal izan dituen iruzur-susmoen eta ustezko irregulartasunen berri. Salaketa aurkeztean informazio hau emango zaio aurkezten duen pertsonari:

1. Salaketari jaramon egingo zaio eta egindako kudeaketan emaitzak jakinaraziko zaizkio.
2. Datu pertsonalen konfidentziasuna errespetatuko da eta babestu egingo dira.
3. Ez dute inongo errepresaliarik jasango, eta funtzionario publikoak badira, ez zaie zehapenik jarriko.

D. Komunikazio etikorako barne-kanala

Salaketarako barne-kanalak izateko betebeharrak urriaren 23ko 2019/1937 EB Zuzentarauan, Batasuneko zuzenbidearen urraketen berri ematen duten pertsonen babesari buruzkoan xedatzen da.

Komunikazio etikorako barne-kanal bat ezartzen da, zeinari pertsona salatzaileak babesteko arauak aplikatuko baitzaizkio. Horren bidez kanalizatzen den informazioa Iruzuraren aurkako Batzordeari igorriko zaio, isilpeko informazio-prozedura abiarazi dezan.

Komunikazio etikorako barne-kanalaren bidez salaketak aurkezteko, helbide elektronikoa bat emango da, zeinak pertsonaren nortasuna gordean babestu beharko baitu mezuaren trazabilitatea eragotzita.

E. Iruzuraren aurkako barne-kontrolako jarduketak.

Aurreko idatzi-zatietan azaldutako detekzio-neurrietatik erator litezkeen kontrol prozedurak artikulatze aldera, eta Iruzuraren aurkako Batzordeari dagozkion eskumenak gorabehera, Udaleko Kontu-hartzailatza Nagusiak aukera izango du kudeaketan gerta litezkeen iruzur kasuak detektatzeko egokitzat jotzen diren finantza-kontrolako jarduketak, bere ekimenez nahiz Iruzuraren aurkako Batzordeak eskatuta.

Kasu horretan, jarduketa horiei aplikatu beharko zaizkie apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuan, Tokiko Sektore Publikoko erakundearen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzekoan.

Ondore horietarako, Tokiko Ogasunak arautzeko Legearen testu bateginaren 222. Artikuluan xedatzen den lankidetzabetebeharraren arabera, Kontu hartzailatza Nagusiak kontrol-jarduketak bideratzeko beharrezkotzat jotzen duen informazioa eskatu ahalko dio Iruzuraren aurkako Batzordeari eta Batzordeak eman egin beharko dio.

5.3. ZUZENKETA- ETA ESESPEN-NEURRIAK

A. Zuzenketa

A través de este canal de denuncia abierto, cualquier persona podrá notificar las sospechas de fraude y las presuntas irregularidades que, a ese respecto, pueda haber detectado, y se le informará de que:

1. La denuncia será tenida en cuenta y les serán comunicados los resultados de las gestiones realizadas.
2. Se respetará la confidencialidad y la protección de datos personales.
3. No sufrirán represalia alguna, ni serán sancionados/as en el caso de que se trate de funcionarios/as públicos/as.

D. Canal de comunicación ética interno

La Directiva UE 2019/1937, de 23 de octubre, relativa a la protección de las personas que informen sobre infracciones del derecho de la Unión, establece la obligatoriedad de disponer de canales de denuncia interna.

Se establece un canal de comunicación ética interno, al que se aplicará la normativa de protección de la persona denunciante. La información que se canalice a través del mismo será remitida al Comité Antifraude, el cual procederá a la apertura de una información reservada.

El canal de comunicación ética interno, se habilitará mediante una dirección de correo electrónico que protegerá la identidad de la persona denunciante impidiendo la trazabilidad del mensaje.

E. Actuaciones de control interno en materia antifraude.

En aras a articular los procedimientos de control que puedan derivarse de las medidas de detección previstas en los apartados anteriores, la Intervención General del Ayuntamiento, sin perjuicio de las competencias que corresponden al Comité Antifraude, podrá, a iniciativa propia o previa solicitud del Comité Antifraude, prever la realización de actuaciones de control financiero orientadas a la detección de posibles casos de fraude en la gestión.

En tal caso, resultarán de aplicación a dichas actuaciones las normas previstas en el Real Decreto 424/2017, de 28 de abril, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local.

A estos efectos, de acuerdo con el deber de colaboración que se establece en el artículo 222 del texto refundido de la Ley reguladora de las Haciendas Locales, la Intervención General podrá solicitar al Comité Antifraude, y este deberá facilitar, la información que sea relevante para la realización de dichas actuaciones de control.

5.3. MEDIDAS DE CORRECCIÓN Y PERSECUCIÓN

A. Corrección





Iruzurraren aurkako Batzordeari dagokio iruzur-susmo ororen aurrean jardutea benetan iruzurrik gertatu ote den zehazteko behar den informazio guztia biltzeko. "Bandera gorri" izeneko markatzaile bat baino gehiago agertzea izango da iruzurra ote dagoen zehazteko irizpide nagusietako bat.

Ustezko iruzurra detektatzeak edo horren susmo oinarriak izateak prozedura berehala etetea ekarriko du, inguruabar hori ahalik eta lasterren jakinarazi beharko zaie agintaritzari interesdunei nahiz jarduketan egikaritzean inplikaturako organismoei, eta iruzurraren eragina eduki ahal izan duten proiektu guztiak berrikusi beharko dira.

Irregularitasunak puntualak edo sistemikoak izan daitezke. Horien irismena ezagutzeko erabiliko diren markatzaileak dira, besteak beste, zenbatekoa, ukitutako pertsonak edota erakundearen "historikoa".

Irregularitasun sistemikoak antzematen badira, neurri hauek hartuko dira:

- 1.- Eragiketa horretan jasotako espediente guztiak edota izaera ekonomiko analogoa dutenak berrikustea.
- 2.- Batasunaren finantzazioa kentzea detektaturako gorabehera identifikatzen den espediente guztietatik.
- 3.- Detektaturako ahulezia zuzentzeko behar diren neurri guztiak komunikatzea unitate betearazleei, antzeman diren gorabeherak berriz errepikatu ez daitezken.
- 4.- Barne-kontrolerako sistemak berrikustea antzeman diren gorabeherak hasierako egiaztapen faseetan detektatu ahal izateko mekanismoak zehazte aldera.

B. Esespena

Iruzurraren aurkako Batzordeak honako jarduketa hauek bideratuko ditu, ahal bezain laster:

1.- Jazotako egitateak eta hartutako neurriak jakinaraztea erakunde erabakitzaileari (edo jarduketak bideratzea gomendatu dion erakunde betearazleari; kasu horretan, erakunde horrek jakinaraziko dizkio erakunde erabakitzaileari). Erakunde erabakitzaileak gaiaren berri emango dio Agintaritzari Arduradunari, eta hark jarraipena egiteko eta Kontrol Agintaritzari komunikatzeko egokitzat jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahaliko du.

2.- Hala dagokionean, egitate zigorgarriak salatzea agintaritzari publiko eskumendunei (Iruzurraren aurkako Komunikaziorako Zerbitzu Nazionala -IKZN/SNCA-), azter daitezken, eta, beharrezkoa balitz, Iruzurraren aurkako Bulego Europarrari horien berri emateko.

SEEP egikaritzeko beren-beregi gaitutako berezko salaketa-kanalaren bidez:

www.igae.pap.minhfp.gob.es/sitios/igae/es/ES/Paginas/Denan.aspx

Ante cualquier sospecha de fraude corresponderá actuar al Comité Antifraude a fin de recabar toda la información necesaria que permita determinar si efectivamente ésta se ha producido. La aparición de varios de los indicadores denominados "banderas rojas" será uno de los principales criterios para determinar la existencia de fraude.

La detección de posible fraude, o su sospecha fundada, conllevará la inmediata suspensión del procedimiento, la notificación de tal circunstancia en el más breve plazo posible a las autoridades interesadas y a los organismos implicados en la realización de las actuaciones y la revisión de todos aquellos proyectos que hayan podido estar expuestos al mismo.

Las irregularidades podrán ser puntuales o sistémicas. Para conocer el alcance se tendrán en cuenta entre otros, indicadores como la cuantía, las personas afectadas y/o el "histórico" de la organización.

En el caso de que se detecten irregularidades sistémicas, se adoptarán las siguientes medidas:

- 1.- Revisar la totalidad de los expedientes incluidos en esa operación y/o de naturaleza económica análoga.
- 2.- Retirar la financiación comunitaria de todos aquellos expedientes en los que se identifique la incidencia detectada.
- 3.- Comunicar a las unidades ejecutoras las medidas necesarias a adoptar para subsanar la debilidad detectada, de forma que las incidencias encontradas no vuelvan a repetirse.
- 4.- Revisar los sistemas de control interno para establecer los mecanismos oportunos que detecten las referidas incidencias en las fases iniciales de verificación.

B. Persecución

A la mayor brevedad posible, el Comité Antifraude procederá a:

1.- Comunicar los hechos producidos y las medidas adoptadas a la entidad decisora (o a la entidad ejecutora que le haya encomendado la ejecución de las actuaciones, en cuyo caso será esta la que se los comunicará a la entidad decisora), quien comunicará el asunto a la Autoridad Responsable, la cual podrá solicitar la información adicional que considere oportuna de cara su seguimiento y comunicación a la Autoridad de Control.

2.- Denunciar, si fuese el caso, los hechos punibles a las Autoridades Públicas competentes (Servicio Nacional de Coordinación Antifraude -SNCA-) y para su valoración y eventual comunicación a la Oficina Europea de Lucha contra el Fraude.

